Aztertutako kasuan, azpiegitura interes publikokoa da, argindarra garraiatzeko erabiltzen baita. Energia elektrikoaren ezinbestekotasuna Sektore elektrikoa arautzeko azaroaren 27an emandako 54/1997 Legearen zioen azalpenean xedatu zen.

Landa lurretan jarri beharra, ordea, azpiegiturak berak dituen ezaugarriek eragiten dute.

Ondorioz, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan jasotako baimena ematea Bilarren 215 eta 17 habeen artean 13/20 kWko airetiko linearen bariantea (Bilar-Laguardiako TEA) jartzeko, IBERDROLA SA enpresak sustatutakoari, hasierako onarpena ematea. Eremu horrek lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta substratu hauskor gaineko leheneragotu beharreko basoaren kalifikazioa du.

Bigarren.- Baimen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu aurretik legeak agintzen duen udal baimena eskuratu beharra, eta ez du behartzen udala erabaki hau edo bestea hartzera.

Hirugarren.- Aurretiazko baimenak ez du administrazio-bidea amaitzen, ezta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik; dagokion egintza administratiboa emateko eskumena duen organoa den aldetik, Bilarko Udalak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena ematen duen arte. Orduan aurkeztu ahal izango da ebazpen horren aurkako errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 30a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

El interés público en el supuesto examinado viene dado por la naturaleza de la infraestructura, la cual tiene por objeto el transporte de energía eléctrica, habiendo sido declarada la esencialidad del suministro de energía eléctrica para el funcionamiento de la sociedad en la exposición de motivos de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, de regulación del sector eléctrico.

La necesidad del emplazamiento en el medio rural viene determinada por las características propias de la infraestructura.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero. Otorgar la autorización prevista en el art. 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, para la instalación de variante de línea aérea a 13/20 Kv “Elvillar” S.T.R. Laguardia, entre los apoyos 215 y 17, del municipio de Elvillar, en terreno clasificado como suelo no urbanizable y calificado como “zona forestal y a restaurar sobre sustrato frágil”, según expediente promovido por IBERDROLA, S.A.

Segundo.- La presente autorización no exime de la obligación de obtener la preceptiva licencia municipal con carácter previo a la ejecución del proyecto, ni prejuzga el contenido del acuerdo municipal correspondiente.

Tercero.- La autorización previa no pone fin a la vía administrativa ni impide su continuación y, consecuentemente, no resulta susceptible de recurso alguno, que únicamente podrá dirigirse contra la Resolución de otorgamiento o denegación de la licencia por parte del Ayuntamiento de Elvillar, en calidad de Órgano competente para dictar el acto administrativo que proceda.

Vitoria-Gasteiz, 30 de mayo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**4057**

**458/2007 FORU AGINDUA, maiatzaren 30ekoa. Honen bidez, Bastidako Herrigune Historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Berezia aldatzeko espedientea behin betiko onartzen da. Espedientea UE-1 egikaritze unitateari dagokio.**

I.- AURREKARIAK

Lehena.- 2006ko irzailaren 18an Bastidako Udalak herrigune historikoko Birgaitze Integratuko Plan Bereziari (BIPB 2004) hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Plan hori Bastidako UE-1 egikaritze unitateari zegokion; era berean, espedientea hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen udalak. Honela egin zen jakinarazpena: 2006ko urriaren 18ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (10. zenbakia) argitaratuz, 2006ko irailaren 26ko “El Correo” egunkarian argitaratuz eta udaletxeko iragarki-taulan jarriz.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, 2007ko martxoaren 2an egindako bilkuran, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, eta Arabako Foru Aldundira igortzea erabaki zuen, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espedienteari 2007ko martxoaren 13an eman zitzaion sarrera foru aldundian.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 97.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, Kultura Sailari txostena eskatu zitzaion, eta 2007ko martxoaren 29an igorri zuen.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espediente honen xedea UE-1 egikaritze unitatearen xedapenak aldatzea da, Frontin kalearen eta Arabako Foru Aldundiaren etorbidearen arteko izkinaren eraikuntza unitateari dagokionez.

Hirigintza kudeaketarako, UE-1 egikaritze unitatea UE-1A eta UE-1B unitatetan banatu nahi da, ondorioz, 15 zenbakiko poligonoko 101 zenbakiko 101 lurzatian dagoen eraikina (BIPBn identifikatua)

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**4057**

**ORDEN FORAL 458/2007, de 30 de mayo, de aprobación definitiva del expediente de Modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Casco Histórico de Labastida, relativa a la Unidad de Ejecución UE-1.**

I.-ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 18 de setiembre de 2006, el Ayuntamiento de Labastida acordó aprobar inicialmente la Modificación Puntual del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Casco Histórico de Labastida (PERHI 2004), relativa a la Unidad de Ejecución UE-1, así como someter el expediente a información pública por el plazo de 20 días hábiles, hecho que fue practicado mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 10, de 18 de octubre de 2006, en el periódico El Correo de 26 de setiembre de 2006, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada ninguna alegación, por lo que el Ayuntamiento, en sesión del día 2 de marzo de 2007, acordó aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su posible aprobación definitiva, donde tuvo entrada el 13 de marzo de 2007.

Tercero.- En virtud de lo establecido en el artículo 97.3 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, fue solicitado el pertinente informe al Departamento de Cultura que lo remitió el 29 de marzo de 2007.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente tiene como objetivo el modificar las previsiones para la Unidad de Ejecución UE-1, concretamente lo referente a la unidad edificatoria en la esquina entre la calle Frontin y la Avda. de la Excma. Diputación.

La modificación consiste en la separación a efectos de gestión urbanística de la UE-1 en dos la UE-1A y la UE-1B, de modo que la edificación existente en la parcela 101 del polígono 15, identificada

antolamendu partzialetik kanpo izaera izatetik UE-1Bren barrukoa izatera pasako da, beraz, UE-1A unitatearen gainerakoa izango da.

15 zenbakiko poligonoaren 101 zenbakiko lurzatiaren zatiak 58 $m^2$ ditu gutxi gorabehera, eta UE-1A eta UE-1Btik kanpo geratzen da.

Bigarrena.- Aldaketaren funtsa jarduketaren ekonomi alderdiaren eta lortutako hirigintza onuren arteko orekan datza.

Hortaz, eremuko ingurumen kalitate berberari eutsi ahal zaio zatika eraitsi nahi den eraikina artatzen bada, eraikinetako etxadiaren izkinaren itxiera gisa ulerturik.

Ondorioz, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Bastidako Herrigune Historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren Xedapen Aldaketaren espedienteari behin betiko onarpena ematea. Espediente hori, -1. etxadiko UE-1 egikaritze unitateari dagokio, Joseba Gorka García Soto jaunak sustatu du eta udal horrek izapidetu du.

Bigarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarren.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoan, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa, ebazpena eman zuen organoari. Horretarako, hilabete izango da egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 30a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

en el PERI deje la situación de Fuera de Ordenación Parcial y quede dentro de la UE-1B, siendo el resto la UE-1A.

La parte de la parcela 101 del polígono 15 de aprox. 58 $m^2$ queda fuera tanto de la UE-1A como de la UE-1B.

Segundo.- Se justifica la modificación en base al equilibrio existente entre los aspectos económicos de la actuación y los beneficios urbanísticos conseguidos.

Por tanto, se concluye, es posible mantener la misma calidad ambiental del área haciendo permanecer el edificio que se planteaba demoler parcialmente, entendiéndolo como remate de esquina de la manzana de edificios donde se encuentre.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación Puntual del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Casco Histórico de Labastida, relativa a la Unidad de Ejecución UE-1, promovido por Joseba Gorka García Soto y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 30 de mayo de 2007.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

**4134**

**247/2007 FORU AGINDUA, Arabako Gimnasia Federazioaren Estatutuak onartzen dituena.**

Euskadiko kirol federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak dio, lehen xedapen iragankorrean, kirol federazioek egokitu egin behar dituztela euren estatutuak Dekretu horrek xedatutakora.

Dekretu horren 65.2 artikuluak dio Arabako kirol federazioen estatutuak Arabako Foru Aldundiko dagokion organoan aurkeztuko direla, onartzeko.

Arabako Foru Aldundian kirolaren arloa Kultura, Gazteria eta Kirol Sailari dagokio.

2007ko otsailaren 14ko data duen 2.259 idazkian, Arabako Gimnasia Federazioak eskatzen du onartzea 16/2006 Dekretura egokitu eta 2007ko otsailaren 13eko Aparteko Batzar Nagusian onartu dituen estatutu berriak.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Arabako Gimnasia Federazioaren Estatutuak onartzea. Euskadiko kirol federazioen gaineko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretura egokituta eta Foru Agindu honi erantsita daude.

Bigarrena. Ebazpen hau eta bere Eranskina Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena. Arabako Gimnasia Federazioaren Estatutuak Foru Agindu honen bidez onartu izanaren kopia bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen Erregistrora.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maioaren 25.– Kultura, Gasteria eta Kirol Saileko Diputatua, FEDERICO VERASTEGUI COVIAN.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

**4134**

**ORDEN FORAL 247/2007 que aprueba los Estatutos de la Federación Alavesa de Gimnasia.**

El Decreto 16/2006,de 31 de enero,de las Federaciones Deportivas del Pais Vasco señala, en su disposición transitoria primera, que las federaciones deportivas adaptarán sus actuales Estatutos a lo dispuesto en el citado Decreto.

El artículo 65.2 del citado Decreto señala que los Estatutos de las federaciones territoriales deportivas alavesas se presentaran para su aprobación en el órgano competente de la Diputación Foral de Álava.

Correspondiendo la materia de deportes de la Diputación Foral de Álava al Departamento de Cultura, Juventud y Deportes.

Con escrito número 2.259, de fecha 14 de febrero de 2007, la Federación Alavesa de Gimnasia solicita la aprobacion de los nuevos Estatutos adaptados al Decreto 16/2006, aprobados por la Asamblea General Extraordinaria celebrada el 13 de febrero de 2007.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

DISPONGO:

Primero. Aprobar los Estatutos de la Federación Alavesa de Gimnasia adaptados al Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, que se incorporan como anexo a esta Orden Foral.

Segundo. Publicar la presente resolución y el anexo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero. Remitir copia de la aprobación de los Estatutos de la Federación Alavesa de Gimnasia aprobados por esta Orden Foral al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de mayo de 2007.– El Diputado de Cultura, Juventud y Deportes, FEDERICO VERASTEGUI COVIAN.